BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4252

EBAZPENA, 2012ko abuztuaren 31koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena. Honen bidez unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako guraso-elkarteen federazioentzako eta konfederazioentzako laguntzak ematen dira.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko maiatzaren 30eko Aginduak egindako deialdian ezarritakoari jarraituz, eta izapidetu diren espedienteak aztertu ondoren,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Arlo edo lurralde eremuak kontuan hartuz ebazpen honen I. eranskinean zehazten diren laguntzak ematea ikasleen guraso elkarteen federazio eta konfederazioei 2012 urtean egingo diren ekintzak finantzatzeko.

2. artikulua.– Deialdiaren 2.d artikuluan aipatzen diren gaiak kontuan hartuz ebazpen honen II. eranskinean zehazten diren laguntzak ematea aurkeztutako proiektuak finantzatzeko.

3. artikulua.– Ebazpen honen III. eranskinean aipatzen diren proiektuei ezezkoa ematea, eranskin horretan bertan adierazitako arrazoiak direla bide.

4. artikulua.– Diru-laguntzaren % 75, deialdiaren aginduko 16.c) artikuluan jartzen duen moduan, emandako laguntza onartu ondoren ordainduko da. Gainerako % 25a «Egindako gastuaren justifikazioa» delakoaren inprimaki normalizatua aurkezten denean, behar bezala beteta, eta ordura arte izandako gastuen faktura eta ordainagiriekin batera. Dokumentazio hau 2013ko urtarrilaren 15a baino lehenago aurkeztu beharko da.

5. artikulua.– Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Hezkuntzako sailburuordearen aurrean. Horretarako epea hilabetekoa izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 31.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria,
CÁNDIDO HERNÁNDEZ GARDUÑO.

I.ERANSKINA

KONFEDERAZIOAK

Udalerria	Erakundearen Izena	Guztira
Bilbao	EHIGE	75.177,96 euro
Bilbao	UFEPA: Confederac. de Euskadi	22.022,04 euro

LURRALDE HISTORIKOETAKO FEDERAZIOAK

Udalerria	Erakundearen Izena	Guztira
Vitoria-Gasteiz	Denon Eskola	60.235,45 euro
Donostia-San Sebastián	Baikara	79.710,23 euro
Bilbao	FAPV-BIGE	99.454,32 euro

BESTE FEDERAZIOAK

Udalerria	Erakundearen Izena	Guztira
Vitoria-Gasteiz	FAPACNE	14.185,54 euro
Bilbao	FECAPP	42.719,31 euro
Bilbao	BIGEF	16.945,68 euro
Bilbao	IKASGE	8.400,80 euro
Getxo	Elkargarri	2.767,08 euro
Loiu	FAPAE	6.884,44 euro
Donostia-San Sebastián	FEGUIAPA	22.196,98 euro
Donostia-San Sebastián	GIGEF	19.551,47 euro
Ikaztegieta	GETGEK	7.214,33 euro
Bilbao	BIDELAGUN	6.000,00 euro

II. ERANSKINA

Erakundea	Proeiktuaren izena	Kopurua
FAPACNE	Educación en la familia y la escuela para la convivencia	9.000,00 euros
BAIKARA	Programa familia y escuela: una tarea en común	9.000,00 euros
BIGE	Fomento de la convivencia	9.000,00 euros
EHIGE	II Jornadas sobre participación de las familias en la escuela: buenas prácticas	9.000,00 euros

III. ERANSKINA

Erakundea	Proeiktuaren izena	
FEGUIAPA	Inglés	Deialdiaren irizpedeekin ez dator bat.